


Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com


*Mari Tere Biain Iñurritegi*

*Oñati,  
Gipuzkoa  
(1928-2025)*

Aurkibidea



## Biografia



Kanpantxon jaioa, ama Olakua baserrikoa zuen eta aita kaletarra. Sei senide ziren, lau mutil eta bi neska. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Ingo Xonau!](#) proiekturako, [Kontxita Biain](#) lagun eta auzokidearekin batera. Mari Terek etxean jaso zuen hitanoa, baina ez zuen begi onez ikusten hika aritzea, baserritarren kontua iruditzen zitzaiolako.

## Zintak

### ONA-282

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-05-03
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

## Pasarteak

### 1. Hika hitz egiten zutela ohartu ere ez

- **Erref:** ONA-282/003
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:02:25. **Bukatu:** 00:03:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

#### Laburpena:

<p>Anai-arrebek hika hitz egin izan dute elkarrekin. Ez du gogoan gurasoek berari nola egiten zioten, baina hika egingo zutela pentsatzen du, behintzat beraiek hala ikasi zuten eta! Orain konturatu omen dira hika hitz egiten dutela.</p>

### 2. Alkateari hika, konturatu gabe

- **Erref:** ONA-282/005
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:04:29. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Eli Galdos alkate zen sasoian, harekin hitz egitera joan ziren udaletxera eta Mari Terek dena hika egin omen zion. Hori lotsagarria zela eta errieta egin zioten! Berak ohartu gabe egin zuela hika dio.</p>

**3. Hika ez zitzaien gustatzen, baina hika egiten zuten**

- **Erref:** ONA-282/014
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:12:44. **Bukatu:** 00:14:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Kanpantxo auzoko lagunak hika hitz egiten zuten elkarrekin. Oraindik ere Gasteizen urte askoan bizi den lagunarekin hala egiten dute. Hala ere, ez zitzaien gustatzen hika, baserritarrena zela pentsatzen zutelako. Gizonezkoena ez, baina emakumezkoen hika gaizki ikusita zegoen. Pertsona jakin batzuekin oharkabea ateratzen zaie; konfiantza handiagoko pertsonekin izango dela uste du Kontxitik.

**4. Norekin hika; askotan oharkabea**

- **Erref:** ONA-282/020
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:20:44. **Bukatu:** 00:21:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Kontxitik anaiari ez zion hika hitz egiten, errespetuagatik edo, zaharragoa zelako. Baina bere adin ingurukoa zen lehengusu batekin hika egiten zuen. Auzoko lagun batzuekin ere hika egiten zuen. Mari Terek esaten dio berak uste baino pertsona gehiagorekin egingo zuela hika, baina askotan konturatu ere ez direla egiten.

**5. Gerra aurretik dotrina euskaraz; gero gaztelaniaz**

- **Erref:** ONA-282/024
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:24:32. **Bukatu:** 00:26:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Politika eta Franco

**Laburpena:**

14 urtera arte ibili ziren eskolan. Gerraostean `Cara al sol´ abestu behar. Eskolan dena gaztelaniaz ikasi zuten. Gerra aurretik, jaunartzea egiteko, dotrina euskaraz ikasi zuten, baina gerraostean hura ere gaztelaniaz. Urtebete egin zuten mojekin eta gero eskola nazionaletara. Irakasle izan zituzten moja batzuk aipatzen dituzte.

**6. Euskal dantzekin Madrilen saria irabazi**

- **Erref:** ONA-282/028
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:29:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Dantza

**Laburpena:**

Pospolinetan ibili ziren, euskal dantzak ikasten, "Círculo carlista"n. Madrilen sari bat irabazi zuten, baina kopa Donostiara eraman zuten, haien izenean joan ziren eta.

**7. Emakumeek hika egitea gaizki ikusita**

- **Erref:** ONA-282/030
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:29:59. **Bukatu:** 00:31:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Emakumeen arteko hika gaizki ikusita zegoen, baldarra zela iruditzen zitzaien. Hortik etorriko zen hikaren galera. Etxekoak edo gertukoak ez zirenekin hika eginez gero, "geizki emuten xon" esaten zieten. Gizonezkoena, berriz, normaltzat hartzen zen.

**8. Konfiantza izanez gero, hika; berez ikasi zuten**

- **Erref:** ONA-282/033
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Kontxidak dio polita dela konfiantza duzunarekin hika egitea. Ezezagunekin ez litzaieke hika aterako. Zaharragoei hika egitea errespetu falta zen. Mari Terek dio inork ez diela hika erakutsi, berez ikasi zuten. Izan ere, euren sasoian eskolan dena gaztelaniaz egiten zen.

**9. Sei hilabetez gau-eskolan, fabrikan lan egiteko**

- **Erref:** ONA-282/034
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena:**

Kontxidak kontatzen du, 18-19 urterekin fabrikan lanean hasi zirenean, sei hilabetez gau-eskolan ibili behar izan zirela. Mojekin dena gaztelaniaz egiten zuten, nahiz eta bakarren batek euskaraz jakin. Sukaldean, josten, idazten, marrazten... denetarik egiten zuten. Iluntzean eskolatik irtendakoan "Naparranetik" bueltan Kanpantxora.

**10. Euren buruari hika**

- **Erref:** ONA-282/038
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:37:52. **Bukatu:** 00:38:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Mari Terek dio bere buruari hika egiten diola. Gainera, zahartzarora eta bakarrik bizitzean, bakarrikzeta gehiago egiten dutela diote.

**11. Garai bateko komuna; arropa garbitzeko, uraska edo erreka**

- **Erref:** ONA-282/044
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:44:20. **Bukatu:** 00:47:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

Garai batean ez zegoen dutxarik; komuna, berriz, txiki bat, itegira zuloa zeukana. Garbigailua ezkondu eta gerora ipini zuten. Beraiek etxean uraska zeukaten. Beste batzuk erreka joaten ziren arropak garbitzera. Kontxidak dio

beraiek ura bazutela etxean, baina auzoko batzuk iturritik ekarri behar izaten zuten. Garbitokia ere handia zuten eta, garia jotzen zutenean, hantxe sartzen ziren.

## 12. Gari-jotzea, batzuek eskuz eta beste batzuek makinarekin

- **Erref:** ONA-282/046
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:48:16. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak
- Baserría » Baserríko lanak » Garia

### Laburpena:

Gari-jotze kontuak. Mari Terek dio beraiek eskuz jotzen zutela. Eduki ere gutxi. Kontxítaren etxekoek, berriz, "soziedade" eginda zuten beste hiru etxerekin. Ganadua ere Mari Tereren etxean bakarra eta Kontxítarenean bi.

## 13. Euren sasoian umeak gutxirekin pozik

- **Erref:** ONA-282/048
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:52:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

### Laburpena:

Garai batean gehiegiko errespetua zitzaíen gurasoei eta orain beste muturreraino joan da. Gaur egun umeei larregi ematen zaiela uste dute. Euren sasoian Errege egunean mandarína bat eta bi mahaspasa oparitzat. Eta trapuarekin egindako marigorringoa. Hala ere, pozik. Gauzak asko aldatu dira alor guztietan. Garai bateko eskolako zigorak; jo ere gíten zituzten.

## 14. Antzinako bizimoduaren inguruko gogoetak

- **Erref:** ONA-282/049
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:52:44. **Bukatu:** 00:53:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

### Laburpena:

Garai batean umeak sehaskan utzi eta gurasoak ortura lanera. Amandrea etxean bazegoen, hark eragingo zion. Garai batean 70 urtekoa zaharra zen eta orain beraiek 91 dituzte!

## 15. Garai bateko eguneroko jakiak; tortilla ogi mamiarekin

- **Erref:** ONA-282/051
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:53:59. **Bukatu:** 00:56:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

<p>Egunero baba lapikoa bazkaltzeko, bakoitzarentzat txorizo zatitxo banarekin eta urdaiarekin. Gauean porru-patatak. Domeketan garbantzuak. Taloa eta esnea. Tremesa. Tortilla egiten zenean, ogi mamia botatzen zitzaion, handiagoa irteteko. Aitak banastak eginda diru apur bat ateratzen zuen, baina dirurik ez zen egoten kalean ezer erosteko. Ogi etxean egiten zuten. Gerra sasoiak ez zuten goserik pasa.</p>

## 16. Josten norekin ikasi zuten

- **Erref:** ONA-282/053
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 00:58:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

### Laburpena:

<p>Josten ondo ikasi zuten. Kontxitik Nati Errekalderekin ikasi zuen eta Mari Terek Maria jostunarekin. Arropak josten zizkieten, gainera. Gerora, Angelitarengana joaten ziren; barruko arropak eta dena josten zituen. Garai bateko kamisoi zuriak.</p>

## 17. Emakumea prakekin? Gonak ere luzeak

- **Erref:** ONA-282/057
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:00:49. **Bukatu:** 01:02:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

### Laburpena:

Mari Terek gogoan du, neskak zirela, elkarren artean komentatzen jarduten zutela beste neskaren bat ira ebakitzera prakekin joaten bazen. Ustez bekatua zela! Baina hori baino gauza logikoagorik! Emakumeek halako asko pasa behar izan zituzten. Paxarekin ibiltzen ziren, ezer ez markatzeko. Gonak ere luzeak, belaunak ondo estalita. Durangoko bonbardaketan hil zen ezagun bat aipatzen dute.

## 18. Aita Brinkolaraino oinez, egur bila

- **Erref:** ONA-282/059
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:03:08. **Bukatu:** 01:04:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Mari Tereren aita zerrategian ibili zen lanean. Aurretik, tarte zegoenean, banastak egiten. Brinkolaraino ere joaten zen batzuetan oinez, egur bila, baita elurra egiten zuenean ere. Bizimodu gogorra zen garai batekoa, baina ikusiezin gutxiago eta konformidade handiagoa zegoen. Kontxitaren aitak banastak egiten zituen, baina soroak ere bazituzten eta han ere lan egin behar. Errepideak soroak harrapatu zituenean, bakea.

## 19. Auzokoekin elkartasun eta konfiantza handiagoa

- **Erref:** ONA-282/063
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:07:02. **Bukatu:** 01:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

<p>Garai bateko bizimodua triste zen, nahiz eta denak konforme bizi. Etxean gatza falta baldin bazen, aldekoarengana. Atea zabalik egoten zen etxeetan. Auzkoen artean elkartasun eta konfiantza handiagoa zegoen.</p>

## 20. Lantegira sartu aurretik, baserriko lanak

- **Erref:** ONA-282/065
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:08:22. **Bukatu:** 01:09:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

### Laburpena:

<p>Goizean zortzietarako lantegira joaten ziren, baina hara joan aurretik seietan jaiki eta baserriko lanak egin behar. Aitak beti esaten zion Mari Tereri aldamenekoak jada lanean zeudela eta jaikitze ohetik. Kontxita zazpi eta erdietan sartzen zen Garai lantegian.</p>

## 21. Lezesarrikoek auzokoei egindako txantxa

- **Erref:** ONA-282/067
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:10:17. **Bukatu:** 01:13:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

<p>Mari Terek Kontzejupetik aldizkarian Lezesarri baserrikoen inguruan irakurritako pasadizo bat kontatzen du. Beraiei gertatzen zitzaien antzera, haiei ere errieta egiten zieten etxean, auzokoak askoz goizago joaten zirelako goizean sorora lanera. Egoera aldatu nahirik auzokoei egin zieten txantxa.</p>

**22. Aloñamendi animatzera Arrasatera joan zirenekoa**

- **Erref:** ONA-282/072
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:14:21. **Bukatu:** 01:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Futbola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

**Laburpena:**

Kontxidak gogoan du behin bizikletekin Arrasatera joan zirela futbola ikustera. Beraiek Aloñamendin alde zeuden eta Zubillagako mutilak Bergararen alde. Etixerakoan, mutilok bidea itxi zieten. Zubillagakoek Bergara alderako joera. Bergarakoak "señoritoagoak" zirela diote. Hizkera ere desberdina.

**23. Mutilei kalabazak dantzan**

- **Erref:** ONA-282/074
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:15:54. **Bukatu:** 01:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena:**

Domeketan dantzara joaten ziren. Mutilak dantza eskean etortzen ziren. Batzuetan etortzen ziren guztiei kalabaza eman, beste bat etortzea nahi zutelako, eta justu huraxe etorri ez! Garai batean lan-lekuan ere topatzen zen mutil-laguna.

**24. Sexuaz hitz egitea ere bekatu**

- **Erref:** ONA-282/076
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:17:38. **Bukatu:** 01:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

**Laburpena:**

Garai batean sexuaz hitz egitea ere bekatua zen, nahiz eta ezkontzera joan. Mandamentuetan horixe izaten zen bekatu larriena, besteei ez zitzaienta ematen garrantzirik diote.

**25. Misiolariak etorri ostean, haurdun ugari**

- **Erref:** ONA-282/079
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:19:24. **Bukatu:** 01:21:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Garai batean familia handiak zeuden, ume askokoak. Kontxidak dio beraiek bost zirela, baina abortu bat ere izan zuen amak. Misiolariak etorri ostean neska asko haurdun geratu zirela dio Kontxidak. Beraiek ez zekizkiten gauzak ere hantxe jakin omen zituzten.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-08-21*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)